

ZENBAT BURU

Amaia Urzelai

ERREPORTAJEA

Agur Udalar



GEHIGARRIA

Zaharrak berri

BERBETAN

Gillermo Garate
EAJ-PNVko zerrendaburua

BARRREN

1999ko ekainaren 18a
VII. urtea - 283. zkia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



Gillermo Garate:
"Elgoibarren bostgarren martxa
sartzeko ordua iritsi da"

"Alkatian berbia, beti nagusi" Esaera zaharra

UDAL EUSKALTEGIAK

1999ko UDAKO EUSKARA IKASTAROAK

**OPORRETAN
ERE ZABALIK**



Udako ikastaroak

DERABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

ELGOIBAR: Nafarroa Enparantza, 2 · Tel: 943 74 27 31
Posta elektronikoa: elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net

MUTRIKU: Txurruka Enparantza, 1 · Tel: 943 60 30 94
Posta elektronikoa: eusk.mutriku@udal.gipuzkoa.net

DEBA: Ifar-kale, 12 · Tel: 943 19 22 36

EGA azterketa prestatzeko ikastaro berezia.

- Ekainaren 28tik uztailaren 23ra eta irailaren 1etik 17ra.
- 3 ordu goizez.
- Atariko proba Euskaltegian bertan.
- Prezioa: 14.000 pta.
- Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 7.500 pta.

EUSKALDUNTZE maila guztiak

- Ekainaren 28tik uztailaren 23ra.
- 5 ordu goizez.
- Prezioa: 14.000 pta.
- Ikasle eta langabetuentzako prezioa: 7.500 pta.

BARNETEGIA ZERAINEN

Gipuzkoako Udal Euskaltegiok antolatuta

- Uztailaren 1etik 15era, astebukaerak barne.
- Prezioa: 37.900 pta.

MATRIKULALDIA

- Ekainaren 7tik 24 ra.



Aretxabaleta · Arrasate · Azpeitia · Beasain
Bergara · Deba · Eibar · Elgoibar · Errenteria
Eskoriatza · Hernani · Hondarribia · Irun
Lasarte-Oria · Legazpi · Mutriku · Pasaia
Tolosa · Urretxu · Zarautz · Zumarraga

ZEZEN-BIDE AUTO-ESKOLA

Auto, autobus, kamioi
eta motorrentzako
gida-baimenak



**10eko deskontua
Gazte Txartelarekin**



4,8=5



AMAIA URZELAI

Gaur ez da ekainaren 13a, ez eta gutxiago ere. Ekainaren 14rako eraman behar ditut lerro hauek erredakziora, baina gaur, askoz lehenago da. Askoz lehenago da, eta askoz lasaiago nago. Ekainaren 18an, asteleheneko azterketa prestatzen egongo naiz. Oporrak iristeko amorratzen, guztia buka dadin amesten. Umore txarrez seguruen, lehertuta, zeharo urduri, dudarik gabe. Dagoeneko esaminetara ohituta egon behar nintzatekela esaten didate, baina ez naiz ohitzen. Ez dakit esaminak patxadaz hartzerik dagoen. Batez ere, ez dakit esaminek zertarako balio duten. Ezaguna zait nolabait ebaluatu behar gaituztela dioen argudioa. Ezaguna zait irakasleari ikasle guztiak beste era batera kontrolatzea ezinezkoa zaiola dioen argudioa. Baina hala ere, ez dut egiten ditugun esaminen funtzioa ulertzen.

Melita kafeontzia flexoaren alboan dutela, gaua esna pasatzen dutenak; esaminera sartu aurretik 6 *valeriana* hartzen dituztenak; azken minutura arte txuleta egiten egoten direnak; alboan daukatenari txibatu behar diotenak... umoretsuago egoten gara beste garai batzuetan: Esaminik ez daukagunetan.

Batek baino gehiagok pentsatuko du: Beno, ez zenukete arazorik izango lehenago ikasten hasiko bazinate. Baliteke arrazoia izatea. Beharbada egia da, baina nik ez dut horrela denik us-te: Ikasle zintzoenak ere (hobe esanda, batez ere) makina bat ordu pasatzen ditu flexoaren aurrean azterketa garaian.

Esaminik ez daukazuenok ere gorrotatzen duzue garai hau. Ez al da horrela? Lagunek eta amanteek ezin izaten dute esaminetan daudene-kin ganorazko planik egin. Interesgarria iruditzen zaizun pertsona hori, morboa ematen dizun hori, esaminengatik mapatik desagertzen denean bakoitzaren burutik pasatzen direnez... hobe ezertxo ere ez esatea.

Etxean, esaminetan berandura arte kalean egoten bagara, haserretu egiten dira. Irtetzen ez bagara aldiz, larritu. Orduan, aireatzera kalera irteteko esaten digute. Hanka puntetan ibiltzen dira batzuenetan: gelatik, kardo bilakatu den lilia orruka noiz irtengo den zain. Zein garai den ahaztu zaionaren etxean aldiz, ikaslea aulkian lotzeko sokak eroatera jaisten dira beheko dendara.

Irakasle batek, zera esan zigun behin eskolan: “azterketaren ondoren, burutik datuak kendu ahal izango dituzue, beste gauza batzuk sartzeko”. Beste behin, zera heldu zen nire belarrietara: “bakoitzaren kultura, informazio bat jasota eta denbora pasa ondoren, buruan gelditu dena da”, eta duela urte batzuk, Txinako esaera hau irakurri nuen: “entzuten dut eta ahazten zait; ikusten dudanean gogora datorkit, eta egitean ulertzen dut”.

Txinako esaeraren lehen zatia modukoak dira gure eskolak gehienetan: Iritsi, irakasleari begira jarri, entzun, idatzi eta eskolatik irten. Horregatik, tragatzen ditugun datu asko ahazten zaizkigu. Gutxiago entzun eta gehiago egingo bagenu, Txinako esaeraren azken zatia praktikan jarriko bagenu, gehiago barneratuko genuke.

Atzo, eskolan, irakasle batek, ikasleonek lana zein zen galdetu zuen. Ikaskide batek, “ikastea” erantzun zuen. Irakasleak orduan, “ez, zuen lana, galdetzea eta pentsatzea da. Ikastea, beste kontu bat da”, esan zuen.

Ikastea (ez naiz eskolaz bakarrik ari), zoragarria iruditzen zait. Baina eskolako (edo gehienez) irakasteko metodologia, hain modernoa izan behar omen den XXI. mendeko atarian, lotsagarria da.

Ahaztu aurretik: Gaur selektibitatea bukatu duzuen guztioi: ondo pasa ezazue ospatzen!! Besteoi, ondo bizi eta zorte on!

Atal hau ez da **BARREN**en editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birrak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12
Publizitatea:
☎ 943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04

E-maila: barren@topagunea.jalgi.com
Helbide informatikoa:
www.ihardun.com/barren


ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala
KAZETARIAK Irati Agirreazaldegi, Asier Orbea
PUBLIZITATEA Maitane Cid
MAKETATZAILEA Bea Ansola
ADMINISTRAZIOA Amaia Martin
GERENTZIA Rafa Alvarez,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Ainhoa Andonegi,
Aitor Argarate, Idoia Arozena,
Aitzol Arriola, Martin Dominguez,
Jon Eugi, Juanito Gorostiza,
Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,
Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,
Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,
Iñigo Otaño, Jon Peli Uriguen,
Iban Urizar, Amaia Urzelai,
Maite Vallejo, Lourdes Zubiaurre.

AZALEKO ESALDIA Gotzon Garateren liburutik
BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E.
TIRADA 4.000 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko
Jaurlearitzako Kultura
Sailak eta Foru
Aldundiak diruz
lagundutako
aldizkaria.



ZUZENKETA

Astelehenean BARRENEk **Udal Hauteskundeetako** emaitzekin ateratako **ale be-rezian** akats bat izan zela jakinarazi nahi dizuegu. Altzolako datuek Santa Klaran behar zuten eta Santa Klarakoek, berriz, Altzolan.

	EAJ/PNV		EH		EA		PP		PSE-EE		IU-EB	
Urtea	95	99	95	99	95	99	95	99	95	99	95	99
SANTA KLARA	128	160	33	51	48	23	4	5	5	2	0	2
ALTZOLA	66	48	56	67	13	16	10	10	15	21	8	0

Mendarotarrentzat oharra

Mendaroko Odol Emaileen Ordezkaritzako kide garenok 15 urtez zuen kolaborazio osoa izan dugu eta orain, berriro ere zuen laguntza behar dugu. Gure urteko gastuei aurre egiteko diru beharrean gaudenez, bazkide egitea eskatzen dizuegu.

15 urtetan lehenengo aldiz Udalarari diru laguntza eskatu diogu eta 25.000 pezeta jaso ditugu (urteko gastuen % 20). Gustura jasotako dirua bada ere, ez da odol ateraldiek eragiten dituzten gastuei aurre egiteko nahikoa, hortaz, egin zaitez bazkide.

Horrela egitea erabakitzen baduzu, edota informazio gehiago nahi izanez gero, deitu gure telefonora (943 75 61 70). Aldez aurretik, mila esker mendarotar guztiei behin eta berriz erakutsitako eskuzabaltasunarengatik.

**Mendaroko
Odol Emaileen Elkarte**

BARRENEk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiak ondo identifikatuta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zenbakia**.



KEXAK

◆ Herriar batek deitu digu honako kexa hau azaltzeko: “**Pedro Muguruza** kalia, **Iriondo** eta **Los Herminios** tabernak daozen kailejoian azpitzik, errekatxo bat pasatzen da. Baina justu errekia kale azpitan sartzen dan tuberixa inguruan; harrizak, zikinkerixa eta bel



lar txarrak pilautada daoz. Traba itxen diote errekatxotik datorren urari eta ezin da tuberixatik pasau. Azken egunetan bezelako kaskabarra eta ekaitza daozenian urak gainezka itxen dau errekatxuan, eta ufalak sortzen dia. Bateron batek garbitxu biharko luke zeozer pasau aurretik”.



TXALOAK

◆ Ikastolako 6. mailako “**Ikastola C**” taldekoek beraien entrenatzaileak (**Eneko, Gerardo, Jon Mikel eta Jesus**) txalotu nahi dituzte, “lan zoragarria egin dute eta oso urrutira iritsi gara beraie esker, eskerrik asko guztiei”.

◆ Herriko emakume batzuek **Nathalia abeslaria zoriondu eta txalotu nahi dute, ETBko “Izar Bila” saioan oso ondo aritu delako**, bai kanporaketetan eta baita finalean ere. “Gehiago merezi zuela uste dugu. Zorionik beroenak luzatu nahi dizkiogu, eta aurrerantzean ere arrakasta eta zor-tea izan dezala opa diogu. Bestalde, jaiak antolatzen dituzten Udaleko arduradunei Nathaliaren emanaldi bat jartzeko proposatu nahi diegu. Bere musika oso egokia iruditzen zaigu jaietarako eta elgoibartarra izanik are gehiago”.



B AI, E S A N ?



Iñigo De la Piedad

Elgoibarko *Eroskiko* arduraduna

Azken egunotan zurrumurru ugari entzun da Belgikako oilaskoen gaitza dela-eta. Jendeak erreparoz egiten ditu erosketak, eta dendetan Belgikako jatorria duten zenbait produktu baztertu egin dituzte. Gu **Eroskiko arduraduna den Iñigo De la Piedadekin** egon gara, arazo honi buruzko zenbait argibide jasotzeko.

- **Zein da Belgikako oilaskoen arazoa?** - Ez da oilaskoak berak daukan zerbaite. Oilaskoak jan duen pentsua da gaitza eragiten duena. Pentsua berziklatutako olio industrialarekin eta hildako animalien zatiekin egina dago, beraz, ez da guztiz naturala. Horrek gaitza eragin dezake, baina oraindik argitzeke dagoen kontua da. Garbi dagoen gauza bakarra da, ona ez dela.

- **Pertsonengan zein eragin izan ditzake?** - Animaliek naturala ez den pentsua hartzen badute, hauengan gaixotasuna sortu daiteke. Pertsonak animalia horien haragia edo beraien arrultzak edo esnea hartuz gero, beraiengan minbizia eragin dezake.

- **Euskal Herrira iritsi al da kutsatutako produkturik?** - Guk ez dakigu kutsatutako produkturik iritsi den hala ez. Baina Belgikatik etorritako produktu guztiak erretiratu egin behar izan ditugu. Sanidadetik ere etorri ziren eta ikusi zuten zenbait produktu apartatuta geneuzkala. Kaltagarriak ez direla jakin arte ez ditugu salduko.


- **Zein motako produktuetan izan du eragina gaitzak?** - Telebistan Belgikatik oilaskoak eta arrultzak ekarri dituztela esan dute, eta jendeak arrultzak eta oilaskoak jateko beldurra dauka. Baina hori ez da horrela, hemen Euskal Herriko oilaskoak eta arrultzak baitauzkagu. Guk arazoa txokolate marka batzuekin, yogurtekin, gailetakin... eduki dugu, hau da, esnea daukaten produktuekin. Txarkuteriako hainbat produktu ere erretiratu behar izan ditugu. Beti ere Belgikatik ekarritako produktuak.

- **Zein izan da jendearen erantzuna?** - Haragiarekin mesfidantza adierazi du. Lehen *behi zoroen* gaitza izan zen eta orain oilaskoena. Horregatik arraina jaten dute garbiagoa delakoan. Hala ere, ez dut uste alarmatzeko motiborik dagoenik. Euskal Herrian eta Espainian dendetan Belgikako produktuak erretiratu dituztela uste dut, beraz, ez dago arazorik. Baina mesfidantza horrek eraginda, jendeak Euskal Herriko produktuak erosteko joera izango du..



ESKERTZA

1999ko ekainaren 12an, 84 urte zituela hil zen
FELIX GARCIA GARATEren sendiak,
bihotzez **ESKERTZEN** ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



agur udalari agur

■ Isaac Loiola EAJ-PNV



■ Zure ardura nagusia Udalaren ekonomia saneatzea izan da, ezta?

Bai, azken lau urteotan nire lan nagusia Udaleko egoera ekonomikoa zuzentzea izan da. Lan horretan ez naiz bakarrik aritu, ordea, profesional talde apartaren laguntza eduki baitut nire inguruan. Horrek segurtasun handia eman dit

eguneroko lanerako. Barrura begira lan egiteko aukera izan dut, ezkutukoa, baina beharrezko lana izan da beste batzuek Udalaren gestioa errentagarri egiteko.

■ Gustura al zaude egin duzun lanarekin?

Niri dagokidanean oso pozik nago. Batetik, ohore handia izan da nire herriarengatik lan egitea, bestetik, lan hori herritar guztiok bizi behar genukeen esperientzia dela iruditzen zait, barrutik gauzak beste era batera ikusten baitira. Orain lau urte neurri buruari ezarri nizkion helburu guztiak bete direla ikusteak poztasun handia eman dit.

■ Ba al duzu politikagintzan segitzeko asmorik?

Politikan jarraituko dut noski, gaur egun Gipuzkoako EAJ-PNVko ejekutibako partaide naiz. Bestalde, Udaletik joateak nire alderdiko barne antolaketan murgiltzeko bidea erraztuko dit. Bizi dugun une politikoa historikoa dela kontuan hartuz, ez diot alde egiten utzi behar. Ezinbestekoa iruditzen zait hemendik aurrera izango diren gertaera garrantzitsuak aktiboki jarraitzea eta bertatik bertara bizi nahi ditut.

■ Ales Arrieta EA



■ Duela 4 urte zenituen aurrikuspenak bete al dira?

Ez. Orduan, gure 3 zinegotziak kontuan izango zirela pentsatu genuen eta Gobernuan aginte gehiago edukiko genuela. Ez zen horrela izan, eta Gobernu Batzordean bakarrik parte hartu dugu, komisiotako lehendakari-tzarik gabe eta fiskalizazio lanak bakarrik eginez. Gobernu batzordean egon garenean gauzak hobeto egin dira herrian.

■ Zergatik uste duzu inork ez duela zinegotzi izan nahi?

Jendeak ez du konpromisorik nahi eta gero eta gizarte indibidualago batean bizi gara. Lehendik ere jendeak nahiko burukomin dauka eta ahal den arazo gutxien edukiaz bizitzea nahi dute guztiok.

■ Politika, kooperatiba mundua ala eskubaloia?

Politika, guztiok probatu beharreko esperientzia da. Esker txarrekoa berez, eta norberak nahi dituen ideak aurrera eraman ezin badira are txarragoa. Kooperatiba mundua, lanean jarduteko ezagutzen dudana erarik egokiena da. Dena den, sistema hau ez da oso ezaguna gure herrian. Eskubaloia, esker onekoa da. Gainera, Elgoibarko bezalako klub batean dauden jokalariekin, gurasoekin eta direktibarekin lan egiteak satisfakzio handia ematen du.

■ Ba al duzu datozen lau urteetarako proposamenik ?

Hurrengo 4 urteei begira, berriak eta lehendik daudenak ea gai diren Lizarrako akordioak Elgoibarren aplikatzeko eta alderdi abertzaleen arteko Gobernu Batzordea osatzeko. Batez ere, horretarako ardura duen EAJ/PNV alderdiari luzatzen diot proposamena.

Udalari

Ekainaren 13ko hauteskundeetako emaitzen eta datuen zurrunbilotik oraindik atera ez garenean, iragan hurbilari begiradaxo bat botatzea pentsatu dugu. Udalbatza berriaren eraketaren zain gaudenean, Udala lagatzen duten zinegotzi batzuk ekarri ditugu gurera. Nola bizi izan dituzten azken lau urteak jakitea izan da gure asmoa.

■ Pello Mendizabal EH



■ Zortzi urte eman dituzu zinegotzi karguan, lagatzeko desiatzen?

"Haize berriak" izan da gure kanpainaren leloa eta nik sinesten dut lelo horretan. Berritzeko eta atzetik datozenei bidea libre lagatzeko garaia da. Hala ere, EH alderdiko eta ezker abertzaleko militantea naiz, eta herriko arazoetan murgilduta jarraitzeko asmoa daukat.

■ HBko zinegotziak

korrontearen kontra lan egin behar izan duzue?

Bai, pakto politikoak sortu ziren ezker abertzalearen aurka eta horrek bizitza politiko markatu du: gure proposamenak baztertu egiten ziren. Tripartitoaren "guardasolarekin" astakeria asko egin dira. Hala ere, lan mordo bat egitea lortu dugu urte hauetan: Herriko Antzokia, Kirolegeiaren munizipalizazioa, Gaztetxea eta Gazte Batzordea martxan jartzea, Lerun parean egin behar zuten ibaiaren mozketak geldiaraztea... Trapu zikinak ere atera ditugu kalera: lindanearen gaia, gaizki egindako kontratazioak, Sigmako industrialdearen gaia etab.

■ Zein aholku eman diezu EHko zinegotzi berriei?

Alboan izango gaituztela laguntza eskaintzeko prest. "Herri Programa" deritzona atera dugu. Eztabaida eta lan askoren ondorioa izan da eta horri jarraitzeko esan diet, oso garrantzitsua baita xede edo erreferentzia bat izatea. Herriarrak eta auzotarrak protagonista bihurtu behar ditugula ere azaldu diot. Arazoak daudenean beraiekin hitz egin eta iritziak kontuan hartu behar dituztela. EHko zinegotziek Udala eta herriarren arteko zubia izatea lortu behar dute. Beraien artean talde giro ona, harreman pertsonalak eta konfidantza sendoak izan ditzatela gomendatu diet. Bide berean lan egiteko ezinbestekoa da elkarrekin ondo konpontzea.

■ Jose Manuel Herrero PSE-EE



■ Ez al da PSE-EEeko zinegotzien lana ezkutuan geratu?

Inpresio hori EAJrekin eta EArekin batera tripartitoan elkarlanean aritu izanak sortu duela uste dut. Gehiegi nabarmendu gabe herritarrentzat lan garrantzitsua egin dugu txikia izan arren igarri da gure ekarpena, meritua EAJ-PNVrentzat izan bada ere.

■ Legegintzaldi honetan Gobernutik kanpo izango al da PSE-EE?

Alderdi abertzaleek euren arteko ituna egingo dutela uste dut. Elgoibarren EAJ-PNVk 7 zinegotzi ditu eta EAren beste 2 zinegotziekin nahikoa izango dutela iruditzen zait. Azken orduan EHk ere itunean sartzeko aukera izan dezake. Horrela izanez gero, Gobernutik kanpo geratuko ginateke. Niri pertsonalki gustatuko litzaidake orain arte bezala elkarlanean aritzea, baina ez dut uste horrelakorik gertatuko denik.

■ Egin dituzun gauzetatik zeinekin zaude benetan harro?

Mintxetako aisialdi gunearen sorrera hurbiletik jarraitu dut eta oso pozik nago emaitzekin. Uholdeak izan eta ondorengo berreraikitze lanetan ere izan nuen laguntzeko aukera. Lortu ez dudana, Luis Mazzantini toretzailearen izena kale bati edo enparantza bati ematea izan da eta pena handia daukat, zezenzale amorratua bainaiz. Eskariak egin ditut, baina ez dira onartu. Hori izan da nire dezepziorik handiena.

agur udalari

■ Juan Ignacio Ausin IU-EB



■ Ez al zara bakar xamarrik egon?

Bai, piska bat bai. IU-EBk Elgoibarren dituen jarraitzaileak ez dira asko eta erabakiak hartzerakoan laguntza gutxi izan dut.

■ IU-EBko kandidatoa kanpokoak izan da, zergatik?

Saiatu ginen hautagai elgoibartarra aurkezten, baina ez genuen lortu. Gazteek ez dute konpromisoa gustuko

eta nagusiagoek adinean aurrera doazela jartzen dute aitzakiatzat. Elgoibarren IU-EBko jarraitzaileak daudela badakigulako, beharrezkoa iruditu zitzaigun norbait aurkeztea. Hau izan zen kanpoko hautagai bat izendatzeko arrazoia. Bestalde, Udalean herritar guztiak ordezkatuta egotea izan da gure betiko asmoa. Uste dut boterea banatuagoa egon beharko litzatekela. Elgoibarren, adibidez, EAJ-PNVk botere gutxiago izango balu besteekin paktu eta hitzarmen gehiago egitera behartua egongo litzateke. Ez dut esan nahi gauzak ez dituztenik ongi egin, baina botoen gehiengoa izateak azalpenik ez emateko aukera eman die eta gardentasuna falta izan zaie kasu batzutan.

■ Zeneukaten zinegotzi bakarra galdu duzue? Zer asmo dituzue etorkizunerako?

Une honetan lur jota gaude, erabat atsekabeturik. Estatu osoan galdu ditugu botoak eta oraindik ez ditugu zergatiak ulertzen. Niri dagokidanez, politikagintzan jarraitzeko asmoa dut, baina era pasiboagoan. Momentuko egoera txarra den arren ilusioa eta gogoia ez ditut galdu eta ideak aldatzea zaila da oso.

■ Juan Carlos Abian PP



■ Damutu al zara inoiz Elgoibarrera etortzeaz?

Inola ere ez, une garratz eta txarrak pasatu ditudan arren inoiz ahaztuko ez dudan esperientzia izan da, momentu onak ere egon baitira. Gainera, ezin daiteke herri oso bat gutxi batzuen arabera juzgatu.

■ Esaizkiguzu

Elgoibarren bizi izan dituzun une on bat eta txar bat?


Manuel Zamarreño Errenteriako PPko zinegotzia asainatu zutenetik ETArekin su-etena indarrean jarri bitarteko egunak izan ziren gogorrenak. Nire bizia arrisku larrian egon zen. Izan ere, bizkartzain eta guzti ibili arren, oso egun arriskutsuak izan ziren niretzako. Bestalde, gogoratzen ditudan unerik onenak Kultur Etxean egiten genituen bilerak dira, baita gizarte prestazioetan laguntzen pasatako uneak ere. 1997ko uztailaren 14a izango dut betirako gogoan, ordea, Miguel Angel Blanco nire laguna erahil zuten eguna, alegia. Ez ditut inoiz ahaztuko Plaza Handian bildu ziren elgoibartarren doluminak eta elkartasuna, guztiei eskerrak eman nahi dizkiet eta Elgoibar beti izango da nire bigarren herria.

■ Ikusiko al zaitugu berriz Elgoibarren?

Bai, badaukat asmoa bisitaren bat egiteko, baina bizkartzainik gabe etortzea nahiko nuke. Bestalde, azkenean PPko kandidatoa elgoibartar bat izatea lortu dut eta burua goian dudala aldegin dezaket Elgoibartik.

Udal Hauteskundeetako emaitzak Elgoibarren

Izan al da harritu zaituen emaitzarik?



IRAIDE LOIOLA

24 urte, produkzio teknikaria


Ez, ez nau ezerk harritsu. Espero zian gauzak bete dia. Euskal Herriko egoeria eboluzionatzen ari da eta horren ondorioz, emaitzak aldatu in dia.



MERCHE ROS

44 urte, administraria

Ez, espero nituen emaitzak izan dira. Elgoibarko Udalbatza ere egokia iruditzen zait, baina bada gauza bat gehiegi gustatzen ez zaidana, Alkatea ez dela herrian bizi.



FERNANDO URIARTE

63 urte, tornero mekanikoa

Ez, dana ondo jun zan. Baina PP bi kontzejal eukitzera pasauko zanik ez naban pentsatzen. Bestela, Elgoibarren osatu dan korporaziua ondo daola pentsatzen dot.



LUIS ARTETXE

43 urte, errektifikadorea

Harritu nauena PPK bi zinegotzi lortzea izan da. Bestalde, Elgoibarren EH igo izanak poztu egin nau, errepresentazioa izan behar duen alderdia dela uste dut.



FELIX GARCIA

31 urte, montadorea

Ez naute emaitzek harritu, baina esanguratsua iruditzen zait EHren igoera. Elgoibarren ez da aldaketa handirik egon. Berdin jarraituko dutela uste dut.



FELISA CASADO

55 urte, etxekoandrea

Asko harritu nau IUREn jaietsierak. Elgoibarren PNVk irabazi duela baino ez dakit, egia esan ez zait politika asko interesatzen, beraz, ezin dut iritzi argirik eman.

segi, euskara ikasi

EUSKARA UDAN

- ▶ Iraileko **EGA** azterketa
- ▶ Irakaskuntzako 1. eta 2. **perfilak**
- ▶ Ikasle eta langabetuek matrikula erdia

UDALAREN LAGUNTZAZ

- ▶ Izena ekainaren 25a aurretik eman.



æk euskaltegia
Plaza txikia, 3
Tel. 943 74 13 32

Albitxuriko lurrak *Elgoibarko Industrialdeari* ematea erabaki zuen Udal Plenoak

Bestalde, HBk Urruzunoko zabortegian lindanea dagoela salatu zuen

Hauteskunde aurreko Udal Korporazioak egindako azken plenan, Albitxuriko lurrak Elgoibarko Industrialdeari ematea onartu zuten, HB alderdiak kontrako botua eman bazuen ere. Proiektuarenhelburua Elgoibarko lur industrialak gehitzea da. Lanak bukatzean guztira 160.000 metro karratuko hedadura izango du.

Gillermo Garate alkatearen esanetan, "enpresek urbanizatu-tako lur sailak izatea da gure nahia. Zerbitzu guztiak eman nahi dizkiegu, ura, gasa, telefonoa... Prezioa 22.000 pezeta/m²ko izango da eta eraikuntza lanaz enpresariak arduratuko dira".

Udalak Albitxuriko lurrak eskaini arren, Elgoibarko Industrialdeak 30 urteren buruan erabilera industrialak ematen ez badio, lurrak berriz Udalaren eskuetan geratuko dira. Hauteskundeak direla-eta Albitxuriko zelaiak oraindik ez dute lur industrial kalifikazioa jaso. Baina espero dute uztaileko lehenengo



Tramiteak amaitzean Udalak Albitxuriko lurra lanean hasteko behin behineko lizentzia emango du.

asterako gestioak eginda egotea. Tramite guztiak amaitzean Udalak lanean hasteko behin behineko lizentzia bat emango du.

HBk gaia aprobetxatu zuen Urruzunoko zabortegian lindanea dagoela salatzeko. Izan ere, zabortegia Albitxuriko terrenoen ondoan dago eta industrialde berriaren parte izatera pasatuko da. Lindanea minbizia eragin dezakeen sustantzia da eta Urruzunoko zaborte-

gira Trapagarango obra batzuetatik ekarri omen zuten, nahiz eta orain artean inork salaketarik jarri ez duen. Lindanea zegoela-eta zenbait zurrumuru zabaldu ostean bi azterketa egin zituzten baina emaitzak negatiboak izan ziren. Hirugarren analisi batek, ordea, lindanea zegoela adierazi zuen, nahiz eta neurria onartutako kopuruaren azpitik egon. "Dato hauek ikusita zailantza ugari dauzkagu, bai gure osasunari dagokionez, baita Albitxuriko industrialdearen bideragarritasunari dagokionez. Gure ustez erantzukizun politikoak eskatu behar dira, ekintza hauek ez baitzaizkigu bidezkoak iruditzen".

Gillermo Garatek adierazi zuenez, "plenoa ez da horrelako gaiak ateratzeko lekua, eta gaur Albitxuriko industrialdearen konzesioa eztabaidatzen ari gara. Gainera HBk badaki Mankomunitatera erresponsabilitate politikoa eskatzeko komunikatua bidali dudala".

Olasoko nitxoien 2. fasea egiteko 23 milioi gastatuko ditu Udalak

Udalak 1998ko ekitaldian 110 milioiko irabaziak izan ditu eta etekinak herriko hainbat obra egiteko izango dira

Obra horietatik diru kopuru handienetarikoa hartuko dutenak Olasoko kanposatuaren eraberritze lanak izango dira. Nitxoien bigarren fasea egiteaz gain, hilerriaren inguruak txukuntzeko asmoa daukate, besteak beste, Olaso baserriaren hondakinak berrituko dituzte.

Bestalde, 4.500.000 pezeta Eguneko Zentruan eta liburutegian gasa sartzeko erabiliko dira. Horren helburua, elektrizitate gastuak gutxitzea da.

Aurreko astean aipatu genizuen bezala, herriko hainbat guneren asfaltatze lanetarako 25 milioi erabiliko ditu udalak.

1998ko irabaziak direla eta ho-



Nitxoien bigarren fasea egin ondoren hilerri inguruak txukunduko dituzte.

nako beste obrak ere egingo dituzte: fatxadaren konponketa, Udalletxearen atzeko aldearen eraberritze lanak, San Pedro auzoko lokal soziala, Palazio baserriko bidearen konponketa, Udalerako altzariak eta Kultur Etxeko saneamendu lanak.

Obrekin amaitzeko, uholdeetatik babesteko proiektua aurrera eramango dute. Lanak Goiko Errotako aparkalekutik Melitongo zubira bitartean egingo dira eta 5 milioiko kostua izango dute. Obra hauei Musikeskolako lanen ordainketa gehitu behar zaie, baita euskara bultzatzeko lanetarako emango duten milioi bat ere.



Kultur Errotak izugarrizko arrakasta izan zuen ikasturteko azken emanaldian

Kultur Errotak ikasturte honetako azken emanaldia izan zuen joan den ostiralekoa, hilak 11. *Dixieland Jazz Band* gazte elgoibartarrez osatutako talde berriak, jendaurrean bere abilitade musikalak erakutsi zituen. Blues eta jazz doinuekin Kultur Etxeko sotora gerturatu zirenen belarriak gozatu zituzten. Bestalde, Mikel Urdangarin zornotzar bakarlariak bere azken diskoko abestiak eskaini zituen eta baita aurreko diskoko zenbait kanta ere. *Badira hiru aste* da kantari gazte honen bigarren lana eta bere hitzetan oinarritutakoak dira kanturik gehienak. Kultur Etxeko sotoan 120 lagun inguru izan ziren eta egon zen sartu ezinda gelditu zenik ere. Denboraldi honetako azken kontzertuaren ostean urriari hasiko dira berriz Kultur Errotako emanaldiak.



500 lagunetik gora izan ziren Ikastolaren Eguneko bazkarian

Joan den zapatuan, hilak 12, Ikastolaren eguna izan zen. Aurretik lehen aldiz Gurasoen eta Ikasle ohien eguna batera ospatu dituzte. Goizean jolasak izan ziren eta nahi zuten gurasoek Ikastolako gelak ikusteko aukera izan zuten. Ikastolako irratia eta laborategiak bisitatzeaz gain, bideokonferentzia eta chat-a ere ikusi zituzten. Eguerdian, 500 lagunetik gora elkartu ziren bazkaltzeko goiko jolastokietan. Bazkaldu ondoren DBH 4ko 50 ikasleri diploma banatu zitzaizkien eta ikasturte osoan ikastolako taldeak entrenatzen ibili diren 28 lagunek ere opari bana jaso zuten. Eguna dantzan eta giro alaiari amaitu zuten.

San Rokeko ermitaren teilatua konpontzen ari dira

Ipintza eta *Zabala* aroztegiko langileak San Rokeko ermitaren teilatua konpontzen ari dira. Egunotan San Roke bailara inguratu direnek ermitan obretan ari direla ohartuko ziren. Izan ere, arkupeko eta elizako teilatuak konpontzen dihardute. Besteak beste egurrak, teilak eta teilatuko hegalak aldatuko dituzte. Obrak joan den astean hasi zituzten eta gauzak ongi joanez gero, datorren asterako San Rokeko ermitaren itxura berria ikusteko moduan izango gara.



AITOR

● Enkartzelada iraunkorra uztailaren 3an

Elgoibarko *Euskal Presoak Euskal Herrira Plataformak* enkartzelada iraunkorra antolatu du uztailaren 3rako, larunbata. Hori dela eta herriko sektore guztiei dei egiten diete enkartzeladan parte har dezaten. Uztailaren 3an, goizeko 10:00etatik eguerdiko 14:00etara izango da enkartzelada, eta sektore bakoitzak ordu erdiko egonaldia egingo du. Kultura, kirola, irakaskuntza, administrazioa... arloetako ordezkariak enkartzeladara joateko asmoa izanez gero, datorren asteartean arratsaldeko 19:00etarik aurrera Kultur Etxean adierazi beharko dute beraien nahia, bertan izango baitira plataformako kideak. Aurrerago, adieraziko dute sektore bakoitzari egokitu zaion txanda.

● Belgikako oilaskoen gaixotasuna dela-eta erretiratu dituzten produktuen zerrenda

Belgikako oilaskoen gaixotasuna medio, zenbait produktu merkatutik erretiratzea erabaki dute. Beraz, dendara joan eta janari hauek topatzen ez badituzu apartatu egin dituztelako da. Dena den, produkturen batekin zalantzarik izanez gero, kode barrari begiratu eta 54 zenbakiarekin hasten bada Belgikakoa dela esan nahi du. Hona hemen, badaezpada merkatutik erretiratu dituzten produktuen zerrenda:

MILKA txokolatea	SVELTESSE Mousse gazta
MILKA tender	RAM nata spray
MILKA nussini	CILE saltsak
SUCHARD txokolatea	MAY Nata spray
TOBLERONE	SOUBRY fideo txinoak
DANONE actimel	CRAKER gailetak
DANONE lehen papilla	MARTE urdaiazpikoa
DANONE edateko suisse-a	CAPDOVILLE pateak



ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartean

Langileak behar ditugu

"TOLETXE" kafe antzokian lan egiteko



KAMARERO 1

Egun osorako

Erref.: Toletxe 01

2 KAMARERO

*Astebukaera
eta jaiegunetarako*

Erref.: Toletxe 02

ZERBITZARI 1

Egun erdirako

Erref.: Toletxe 03

GARBITZAILE 1

20 orduko lan-astea

Erref.: Toletxe 04

- TOLETXE proiektuaren helburuekin bat etortzea ezinbestekoa izango da kasu guztietan.
- Sektorean esperientzia edukitzea eta elgoibartarra izatea baloratuko dira.

Oharrak:

- Curriculumak jasotzeko azken eguna: uztailaren 9a.
- Curriculumean lanpostuaren erreferentzia zehaztea nahitaezkoa izango da.

Izena emateko eta informazio gehiago:

ELGOIBARKO IZARRA Kultur Elkartea

Ubitarte 4, behea

20870 Elgoibar

Tel.: 943 74 16 26 (Imanol)

ZaHaRRaK BERRi

3. adinari zuzenduriko gehigarria



39. zkia - 1999ko ekainaren 18a

M^a Carmen Arriola:

"Benidormen 20.000 euskaldun bizi gara"

Mari Carmen Arriola elgoibartarra da baina negu osoa pasatzen du Benidormen. Santu Guztien Eguna pasatakoan joaten da eta ekainerako itzuli. Bizimodu lasaia egiten duela aitortu digu, eta Benidormen gustura egon arren sarritan akordatzten da Elgoibarrekin. BARREN bertan jasotzen du, eta behin eta berriz irakurtzen duela esan digu, "euskara ez ahazteko irakurtzen dut, hala ere, Benidormen hemen baino gehiago hitz egiten dut euskaraz". Mari Carmenek Benidormeko ibilerak eta beste zenbait bidaiatakoak kontatu dizkigu.

- Benidormen pasatzen duzu negua ezta?

- Bai, Santu Guztien Eguna pasatu eta berehala joaten naiz eta ekainean bueltatu. Negua han oso ederra da eta etxe bat daukadanez aprobetxatu egiten dut. Lehen gehiago bidaiatzen nuen baina senarra hil zenetik Benidorm inguruan baino ez naiz mugitzen. Benidormetik bertatik zenbait bidaiara egin ditugu: Sevillako Apirileko Ferriara, Valentziako Falletara...

- Norekin egoten zara Benidormen?

- Bakarrik joaten naiz, baina han lagun koadrila daukat, lehen gehiago ginen baina azkenaldian asko bakandu gara, batzuk joan egin dira-eta. Goizetan paseatzera edo erosketak egitera ateratzen naiz eta lagunekin elkartzeko gero aperitiboa hartzen dugu. Arratsaldero kafea hartzeko gelditzen gara. Egunero, kafetegi berean elkartu eta bertan ematen dugu

arratsaldea, hitz egiten edo dantzatan. Orkestra bat egoten da eta jotak jotzen dituzte guk dantza egiteko. Igandetan, Carmengo elizara joaten naiz 11:30eko mezatarara, meza euskaraz izaten dalako.

- Gauetan ateratzen al zara?

- Egun berezietan ez bada ez naiz ateratzen. Gabon gauean, Urte Zahar gauean edo Erregetan baino ez. Gabonetan kotiloietara joaten gara, oso dotore jantzita. Aurten go Gabon Zahar gauean hamabietako kanpaien ostean orkestak jo zuen eta musika amaitu zenean, telefonoko abisua nuela esan zidaten. Elgoibartik familiak deitu zidan eta lagunek ere igarri zidaten zein pozik jarri nintzen.

- Euskaldun asko dago Benidormen, ezta?

- Erroldatuta egon gabe, bertan etxea daukagun 20.000 euskaldun bizi gara Benidormen. Horretaz gain, lmsersoko bidaiekin etortzen direnak, eta denboraldiak han pasatzen dituztenak daude. Benidormeko errolda oso txikia da, eta hona etorri baino lehen bertan erroldatzeko proposamena egin zidaten. Hala ere, ni elgoibartar sentitzen naiz eta ezetz esan nien. Benidormen kaleetan euskaldun asko ikusten da, eta nik euskaraz hitz egiten entzuten diegan bakoitzean nondarrak diren galdetzen diet beti. Elgoibartarrak Benidormera joaten direnean ni bisitatzerara etortzen dira eta horrek izugarrizko poza ematen dit.

- Atzerrian izan al zara inoiz?

- Senarra bizi zela bidaiara asko egin nituen. Italiara joan ginen, Zentroeuropa ere bai, eta Afrikan ere izan nintzen. Italiara egindako bidaiara daukat gogoan. Urte Santuan joan ginen San Ignacio de Loyolako kofradiarekin. Jesuita batekin joan ginen eta Aita Santuarekin audientzia izan genuen. Oso emozionantea izan zen niretzako.

- Italiako bidaiara izan al da egin duzunetan politena?

- Bai, nire bizitzako egunik politenak pasatu nituen bertan. Jubileoa egin genuen, Erromako eliza guztiak bisitatu genituen, eta denetan "Agur Jesusen Ama" abestu genuen. Aita Santuarekin audientzia izan genuen egun berean, arratsaldez Aita Arruperekin beste audientzia bat izan genuen eta euskeraz abestu genuen.



Mari Carmenek Italiara egindako bidaiara da egin duzetan politena.



GAZTAROKO OROITZAPENAK

Antonio Ansola:

"Profesionala nintzalako ez zien azkenengo tenporadia Elgoibarren jokatzeko laga"

Azkube baserrian jaio zen Aduela 68 urte eta egun bertan bizi da. Antonio Ansola kirola egiteko hasi zen futboleant eta gaztetan primerako futbolaria izatera heldu zen. Kontatzeko gauza asko dituela jakinik, berarekin berriketalditxo bat egitea pentsatu dugu. Ubitarte plazan daukan pentsu almazenean aurkitu dugu eta futbolaren inguruko hainbat kontu esan dizkigu.



- Noiz hasi zinen futboleant?

- Berandu hasi nintzan futbolian. Lehenengo eskuz itxen naban pelotan, baina beti eskuko minakin ibiltzen nintzan eta 18 urtekin futbolian hasi nintzan, Elgoibar txikixan. Gero, 22 urtekin, Realian fitxia in naban eta zediduta Eibarren egon nintzan jokatzeko, eta handik, berriz, Donostiara Reale-
ra. Urte baten Elchen egon nintzan, baina zazpi partido bakarrik

jokatu nitxuan, lesionauta eon nintzalako. Nik azkenengo tenporadia Elgoibarren jokatzeko nahi naban, baina federaziuak profesionala nintzala eta ez zian laga. Gero Ondarrun jokatu nitxuan zazpi-zortzi bat partido eta han amaitxu naban.

- Futbolari asko ezagututakoa izango zara, ezta?

- Epoka aretako danak. Cubala, Puskas, Gento... eta beste asko, orduan ere futbolista onak bazauden. Gento modukuak gitxi egongo dia oin.

- Zer aldatu da futboleant zure garaitik ona?

- Nik ez dakit aldatuta dauden, baina nik gaizki ikusten doten gauza bat da elkarri heltzen ibiltzia eta futbolian jokatzeko ez lagatzia. Hori kastigau in biharko litzakela uste dot. Kanpuak ere lehengo aldiari askoz hobiak dia. Reglamentoko baloiakin (300 gramo ingurukua) hasi eta partido amaieran 710 gramo pisatzera ailegatzen zan. Ez zauan haura buruakin despejauko zabanik. Eibar-ko kanpuan hondar asko zauan eta Atotxan ere orduan kanpua eskasa zan.

- Atotxako futbol zelaia bota berri dute. Penarik eman al di- zu?

- Bota eta gero enterau naiz ni. Kanpo politxa zan, jendiagandik urrian gelditzen zan. Oindiok Anoetan ez naiz egon, baina han porterixa atzetik zeozer ikusteko katalejuak bihar ditxu personiak.

- Zein ziren zure ezaugarri az- pimarragarrienak?

- Ni zentrala nintzan eta buruakin ona. Indarra ere banakan eta bizkorra ere banintzan.

- Familian izan al duzu inor fut- bolaririk?

- Tio zanak itxen zaban futbolian Madriden. Aitxa zanak ere diskua eta jabalinia botatzen zitxuan.



Deporterako bazaudan familixan afiziua. Oin ilobak pelotan jokatzen dau baina ez dakit segitxuko daban edo zer ingo daban.

- Zein aholku emango zenioke futboleant jokatzeko hasten den gazte bati?

- Konsejuak ematia batzutan gaitza izaten da, baina deportia itxia nahi dabanak zaindu in bihar dau bere burua, bestela eztao itxerikan. Gainera, afiziua ere euki bihar da. Gure garaixan danak zaintzen ginan, Elgoibar txikixan batzuetan botak etxera eruan eta guk garbitzen genduzen. Orduan diferentia zan, oin libertade gehixao da.

- Pentsuekin noiz hasi zinan?


- Anaixa gaixorik jarri zanian hasi nintzan. Cadizera jun nintzan pruebak eitxera baina ez naban fitxau. Hona etorri eta almazenean arduria hartu naban. Orduan Eibarren jokatzeko naban. Oindiok hemen segitzen dot baina ez dot uste askoz denbora gehixao ingo dotenik, laster ilobak hartuko dau.



ETA ZUK, ZER DIOZU?


Gustatuko al litzazuke 100 urtetik gora bizitzea?

Zeinek pentsatuko zuen orain dela mende bat, bizi esperantza 40 urterainokoa zenean, 100 urte beranduago pertsonarik gehienak 75 urtera arte iristeko gai izango zirela. Baina gaur egun hala da, dieta mediterraneoak, kirolak eta bizitzari era baikorrean begiratzeak norberaren bizitzari urte gehiago ematen omen dizkio. Agian, aurrerantzean, zientziak 100 urteak betetzera iristeko pozima majikoren bat asmatuko du. Baina bitartean norbera saiatu beharko da adinean aurrera egiten eta ahalik eta urte gehien era egokian bizitzen. Izan ere, bizitza kalitate ona da urtetan aurrera egiten laguntzen duen gauza bakarra.



Emilio Rumayor

Ez. 100 urte gehiegi direla uste dut. Urtetan aurrera joan ahala fakultateak galtzen dira eta ganoraz ez bizitzeko nahiago dut hainbeste urte betetzera ez iristea. 100 urtetara iritsi nahi duenak bere burua zaindu beharko luke. Ni zaintzen naiz baina ez dut uste horrenbeste urtera helduko naizenik.



Secundino Arkauz

Neri bai, gustatuko jatan. Horretarako arda gitxi eran eta ondo jan bihar da. Baina kapritxoko janak, langostinuak, filete bigunak... Tamainan eta egoki jan ezkeru pertsoniak bere burua zaintzen dau eta hola urte asko hartzeko moduan egoten da bat. Norbere burua zaintzia da kuestiua.



Maria Martinez

Ondo egonez gero bai, baina bestela ez. Osasunez gaizki dagoena familiarentzat karga bat bihurtzen da eta hori ez litzaidake gustatuko. Osasunez ondo egoteko gehiegikeriarik ez egitea da onena. Badago beste bizitza klase bat eramanda ehun urte hartzen duenik. Hori norberaren arrazaren edo kastaren arabera da.



Antonia Tercero

Ez, ez litzaidake gustatuko. Norbaitek zaindu beharko ninduke eta seme-alabak ere nekatu egiten dira. Nire kontura moldatzen naizen artean ondo, baina hortik aurrera ez litzaidake gustatuko inork nerekin arduratu beharra izatea. Urtetan aurrera egiteko norberak bere burua zaindu behar du, baina ni batzuetan janariarekin pasatu egiten naiz.



Paulina Lasa

Ez det uste. Nahixao det urte gutxiauan bizirik egotia baina ondo. Ni gauzak eitxeok kapaz naizela, eta ez bestieri lana ematen. Batzuek zaindu arren gazterik hiltzen dia eta beste batzuek zaindu gabe urte mordo bat hartzen ditzue. 100 urte hartzeko eta bizitzeko Jangoikuak zeozer eman biharko dabala uste det.



Idorreria (estreñimiento) sahiesteko aholkuak

Idorreria jende ugari izan ohi duen gaixotasuna da. Era egokian diagnostikatzen eta tratatzen ez bada osasun arazoak sor ditzake. Arazo hau izan arren asko eta asko dira sendagilearengana joan gabe, beren kontura sendagaiak hartu ohi dituztenak. Egokiena dieta ona jarraitzea dela kontuan hartu gabe. Hona hemen hainbat aholku idorreriari aurre egiteko.

► **1.** Idorreria diagnostikatzeko, era egokian tratatzeko eta arazoa gehiagora joan ez dadin, komenigarria da sendagilearengana joatea. Osasun arazoak sor ditzakeen disfunzioa da idorreria, eta sarritan izanez gero minbizia agertzeko aukera dago.

► **2.** Barazki, fruta, lapikoko, fruta lehor eta zerealak jan. Honek funtzionatzen ez badu, janari edo produktu dietetikoak hartu aurrez adituari galdetu.

► **3.** Likido asko edan. Gutxienez litro eta erdi egunean.

► **4.** Egunero ariketa fisikoa egitea, oinez ibiltzea edo kirola egitea komeni da. Geldi egonez gero hesteek ez dituzte beraien funtzioak behar bezala betetzen, eta horren eraginez sortzen da idorreria.

► **5.** Gogoia izanez gero komunera joan. Orduz gehiago jarraitzea eta behar den denbora erabiltzea komeni da, inolako prisarik gabe eta lasai. Ohitura hauek txikitik hartzea guztion onerako da.

► **6.** Idorreria beste edozein gaixotasun bezalakoa izanik, lehen sintomak igarri bezain laster sendagilearengana joan behar da.

► **7.** Obsesionatzea ez da ona. Bakoitza komunera behar duenean joaten da, denok ez dugu komunera joateko gogo bera izaten. Baina pertsona bat astean bi edo hiru aldiz baino ez bada joaten, idorreria daukala esan daiteke.

► **8.** Automedikazioak osasun arazo larriak ekar ditzake.

► **9.** Ez da komeni laxante asko hartzea. Medikuen kontrolik gabe hartuz gero ondorio txarrak izan ditzake: agresiboak dira, dependentzia sortzen dute eta ondoezak eragin ditzakete. Gainera, beti ez dute idorreria sendatzen. Momentuan funtzionatu arren, gerora berriz agertzen da gaixotasuna.

► **10.** Hesteen funtzionamendua erregulatzen duten gauzak hartzea hobea da, esaterako laktuosak. Oso metodo segurua da, ez dauka ondorio txarrik eta hesteen funtzionamendu egokia errazten du.



Sotera Mendizabal Legatza saltsa berdean

OSAGIAK:

Legatza, olioa, berakatza, idarrak, perrexila, gatzia, irina, pipermina, esparragoak eta arraultzak.

PRESTAKETA

Lehenengo berakatzak oliotan jarri eta erre baino lehenago atera. Olio hotzila dagoenean irin piska bat bota. Legatza oliotan jarri eta mugitu. Gero buelta eman eta berriz ere mugitu. Ondoren, prest dauzkagun idarrak botako dizkiogu eta saltsa ateratzeko kazuela mugitzen jarraituko dugu. Idarrek, beraiek ere jugoa botako dute. Perrexil piska bat bota eta beste apurtxo baten eduki. Legatza jan baino piska bat lehenago egin beharreko gauza bat da, batez ere ona bada. Legatza prest daukagunean lurrezko kazuela baten aterako dugu mahaira. Aurkezpena polita izan dadin aurrez egositako arraultzak eta esparragoak jarriko dizkiogu apaintzeko. “Legatza ongi prestatzeko sekretu bakarra mimatzea da, janariak pertsonen bezalaxe mimoak behar ditu”.

ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA · ERREZETIA

Aste honetako berbetan atala Guillermo Garate EAJ-PNVko zerrenda buruari eskaintzea erabaki dugu. Zihurrenik bera aukeratuko dute alkatetzarako bigarrenkoz jarraian. PNV-EAJ izan baita ekainaren 13ko Udal Hauteskundeetan boto gehien lortu dituenena. Alkate izan den lau urteei buruz hitz egin dugu eta etorkizunerako dituen asmo eta ideei buruz galdetu diogu. Baita hauteskundeetako emaitzak ikusirik zein ondorio ateratzen dituen ere.

GILLERMO GARATE

"Zinegotzien arteko sintonia egonez gero, Udalak hobeto funtzionatuko du"

– **Emaitza hobeak espero zenituzten akaso? Zinegotzi bat gehiago behintzat bai, ezta?** Bai, halaxe da. Beste emaitza guztiak nik pentsatzen nituen modukoak izan dira, baina hortan huts egin du nire kinielak. Dena dela, hauteskunde hauek izan duten kontestua edo egoera ikusirik, guretzat unerik txarrean iritsi dira, aurreko Udal Hauteskundeetako emaitzak mantentzeak bado meriturik.

– **Nora joan dira EAJk eta EAK galdu dituzten botoak? Zergatik?** Guk galdutako botoak EHra joan direla argi daukat, Arnaldo Otegi elgoibartarra izatea bultzada handia izan da. EAren botoak nora joan diren erantzutea ez dagokit niri. Gure ardura ez da galdu ditugun 141 boto-

ez kezkatzea, lortutako 2.300 botoengatik poztea eta aurrera jarraitzea baizik.

– **Urteek nekea ala esperientzia eman dizute?** Dударik gabe esperientzia. Aurreko 4 urteetako esperientziak proiektu asko oraingo legegintzaldian bukatzeko aukera emango dit. Alkate izaten ikasteko denbora beharrezkoa da. Nik pasa dut etapa hori, eta orain Elgoibarren "bosgarren martxa" sartzeko unea iritsi dela uste dut. Ni alkate sartu nintzanean, lehendik zetozen zenbait gauza konpontzeko lan gogorra egitea tokatu zitzaidan, diru zorrak batez ere, eta zama hori gainetik kendu artean ezin izan ginen proiektu berrietan pentsatzen hasi. Udalaren funtzionamenduan beste egitura ekonomiko

eta administratibo bat aurkitu izan banu, desabantailarik gabe hasiko nintzen lanean.

– **Gustatzen al zaizu Elgoibarren osatu den 17 zinegotziko Udalbatza?** Askorentzat zinegotzi moduan arituko diren lehen aldia izango da eta ikusi egin beharko da nola moldatzen diren. Zinegotzi lana ez da erreza, herritar guztiak probatu beharrezkoa dela uste dut. Aukera hau aprobetxatuz, bihotz bihotzez ongi etorria ematen diet guztiei. Gure arteko harremanak alde egin dutenekin baino hobeak izatea nahiko nuke, gure arteko "sintonia" egonez gero, Udalak askoz hobeto funtzionatuko baitu.

– **Zeri edo zein alorri eman nahi diozue lehen-tasuna datozen 4 urteotan?** Programa goitik behera segitzea da gure asmoa. 20 urtetan horrela jokatu dugu eta aurrerantzean ere berdin egingo dugu. Aurtengo hauteskundeetan ezik, gure alderdia da orain arte, egindako lana eta etorkizuneko proiektuak programa batean aurkeztu dituen bakarra.

– **Aurreko legegintzaldian egindako zerbaitetaz damutu al zara?** Ez naiz ezertaz damutzen. Aldatzekotan nire familiakoekin egoteko denbora gehiago izatea nahiko nuke. Gainontzean gure gestioarekin oso gustura nago.

– **Pentsatu al duzu inoiz "merezki zuen alkatea izatea"?** Nire herriko alkate izendatzea da egin didaten ohorerik handiena, ez nuke beste ezergatik aldatuko.

BESTEAK ESANA

"Langilea eta lankide ona, nahi duena lortu artean gelditzen ez den pertsona." MAITE SUAREZ, Idazkaria.





J. Miguel Escudero

Txemi Escudero elgoibartarra due-la bi urte joan zen Granadara bizitzera. 42 urte ditu eta arotz bezala lan egin ondoren, Biarritzen amerikar bikote aberats bat ezagutu, eta hauek, Granadan zeukaten *cortijoa* zaintzeko ardura eskaini zioten. Urte batzuetan Granadara joan eta etorri ibili ostean, han finkatzea erabaki zuen. *Sierra Nevada* mendi katearen parean dago kokatuta etxaldea, 1.200 m.ko altueran eta 120 hektarea ditu, oso ikusgarria da, landaretzaz eta animaliz bete. Jabeek aisiialdirako bakarrik erabiltzen dute *cortijoa* eta Txemiren lana mantenimenduaz arduratzea da. Horretarako beste 18 langile ditu bere ardurapean eta zaldiak eta gainontzeko animaliak zaintzea dagokio. "San Migeleko Alzate baserrian jaiotakoa naiz eta mundu hau gertutik ezagutzen dut, lana baino gehiago hobby bat da, libre ditudan egunetan ere hara eta ona ibiltzen naiz gelditu gabe". Elgoibartik *kaia* tabernan pasatzen zituen momentuetaz eta Mugerza krosaz gogoratzen da. "Krosa antolatzen laguntzen ibilitakoa naiz eta pena ematen dit ezin ikusteak". Afizio edo ohitura berriak ere baditu, "3 urte daramatzat Doñanan egiten den *Rociora* joaten. Zaldi gainean egiten dut eta juerga giroan egiten diren 3 egun eta 3 gau izaten dira".

Horretarako beste 18 langile ditu bere ardurapean eta zaldiak eta gainontzeko animaliak zaintzea dagokio. "San Migeleko Alzate baserrian jaiotakoa naiz eta mundu hau gertutik ezagutzen dut, lana baino gehiago hobby bat da, libre ditudan egunetan ere hara eta ona ibiltzen naiz gelditu gabe". Elgoibartik *kaia* tabernan pasatzen zituen momentuetaz eta Mugerza krosaz gogoratzen da. "Krosa antolatzen laguntzen ibilitakoa naiz eta pena ematen dit ezin ikusteak". Afizio edo ohitura berriak ere baditu, "3 urte daramatzat Doñanan egiten den *Rociora* joaten. Zaldi gainean egiten dut eta juerga giroan egiten diren 3 egun eta 3 gau izaten dira".



bidaia agentziak
babestutako atala

Foruen enparantza, 3
Tel: 943 74 39 12

Gillermo Armendia Irusta

(1892-1965)



- 1892ko urtarrilaren 16an jaio zen, Errosario kalean. 8 anai-arreba ziren, bera bosgarrena. Garai hartan ikasketak aurrera ateratzeko aukera gehiegirik ez egon arren, defenditzeko beste ikasi zuen herriko maisu batekin.
- Gaztetan monagiloa izan zen eta esku pilotan jokatzeko pasatzen zituen eguneko ordurik gehienak. Plaza Handiko frontoian oinutzik eta artilezko pilotarekin jokatzeko, dirurik ez baitzuen zapatilak eta naruzko pilota erosteko.
- 15 urte bete zituen arte ez zuen lan finkorik aurkitu eta han eta hemen ibili zen lanean. 15 urte bete zituenean, ordea, Azkoitian bilatu zuen lana. Eurria edo kaskabarra egin arren, joan etorri guztiak oinez egiten zituen.
- Zortea piska bat aldatu eta *Gabilondo y Cia* lantegian hasi zen lanean. 70 urte bete zituen arte aritu zen bertan.
- Upai baserriko Maria Izagirrekin ezkondu zen eta 5 seme-alaba izan zituzten. Denda bat ere iriki zuten Errosarioko amabirginaren azpian, gaur egun 'Tik-Tak' denda dagoen lekuan.
- Oso gizon estimatua izan zen Gillermo herrian, Bandako partaidea izan zen, baita koruko ere.
- San Luistarren kongregazioko kidea zen, oso sinestuna. Parrokian eta Santa Klarako konbentuan beti zegoen laguntzeko prest. Aste Santuan familia guztia ipintzen zuen lanean Parrokian.
- Gillermoren familia 'Torlojerokuak' bezala ezagutzen zen herrian, aitik torlojuak egiten baitzituen.
- Gizon borondatsua eta zintzoa zen eta familia giroa zuen gustuko. Lagun artean paseatzea eta 'Bar Alegrian' (Bar Untzon egon zen toki berean) otartekoa janez tertuliatxoak egitea ere izugarri atsegin zituen.
- 1965eko azaroaren 14an hil zen Gillermo 73 urte zituela.

Juanito Gorostiza



karkizano

San Franzisko, 14 - Tel. 943 74 05 49



Arrieta

San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

- Kontabilitate
- Lan
- Fiskal



URKIDI


AHOLKULARITZA

ITT ERCOS ASEGUROAK

Kalamua, 12
ELGOIBAR
Tel-Faxa:
943 74 18 91

KAROBI

TABERNA



ELGOIBAR

San Frantzisko, 37
Tel. 943 74 06 37



ste honetako argazkia bertan agertzen den familiako kide batek ekarri digu. Altolako familia oso ezaguna da. Iñasio eta Flora anai-arrebak 1958ko azaroaren 8an ezkondu ziren Itziarko Amabirginaren eleizan eta eleiz atarian atera zuten argazki hau.

Honakoak dira erretratuan agertzen direnak, Goiko bi mutiletatik hasita ezkerretik eskuinera: **Pakito** ("Bar Pakito"-ko tabernari ohia) eta **Jose Mari**.


Beheragoko ilaran, ezkerretik eskuinera: **Inaxio, Maria, Joxepa Iñaxi Uria** (†), ama, **Luis** (†), **Joxe Oñederra** (†) Aita **Flora** eta **Jesusa**.

Itziarko Salegi jatetxean bazkaldu zuten eta alaitasunez eta oso pozik pasa zuten eguna.



I. URTEURRENA

1998ko ekainaren 20an, 55 urte zituela hil zen **JESUS MARI ORTUETA** ren oroimenez **URTEURRENEKO MEZA** izango da Parrokian igandean, hilak 20, eguerdiko 12:30etan. Joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



Zuzenketa: 281. aleko erretratu zaharrean Txomin Iribarren hilda dagoela jarri genuen bere anaia Prudentzio zenarekin nahastu baigenuen. Txominek gaur egun 98 urte ditu eta Donostian bizi da. BARRENEko lantaldeak barkamena eskatzen diogu.

Pagoaga-Elgoibar eskubaloi taldea, hilaren 20an, domeka, hasiko da Espainiako Txapelketako fase finala jokatzen

Burgosen jokatuko dituzte partiduak eta bost egun egingo dituzte bertan

Pagoaga-Elgoibar kadete mailako nesken eskubaloi taldea domekan, hilak 20, hasiko da Espainiako Txapelketako fase finalari dagozkion partiduak jokatzen Burgosen. Lehen partidua *Amposta*, Kataluniako txapeldunen aurka jokatuko du Burgosko Bibriesca herrian. Hurrengo egunean, hilak 21, Canariar Irletako *Remudas* taldearen aurka jokatuko du. Azken partiduan, ekainaren 22an, *Clesa Le-*



Pagoaga-Elgoibar izango da Eskubaloiko ordezkaria Espainiako Txapelketan

on, Gaztelako txapeldunak izango dituzte aurrez-aurre. Gogoratu, azken faserako espainiako 8 talde onenak sailkatu direla eta bi taldetan banatu dituztela. Talde bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira finalerdiak jokatzeko. Beraz, 2 partidua irabaztearekin aurrera jarraitzeko aukera izan dezakete elgoibartarrek. Hori dela eta, Elgoibarrera itzultzeko eguna hilaren 25era arte luzatu dute.

24 elgoibartarrek hartu dute parte Hondarribiako 3. adinekoen gimnasia erakustaldian

Argazkian agertzen diren 24 elgoibartarrak Kiroldegian aritzen dira gimnasia egiten eta duela pare bat aste Gipuzkoako 3. adinekoen gimnasia erakustaldi batean parte hartu zuten Hondarribian. Gipuzkoa osotik joandako 550 lagun inguru elkartu ziren eta elgoibartarrek esan digutenez, "10 minutuko koreografia bat prestauta jun ginan eta oso ondo pasau gendun eguna. Hondarribiko jatorri ezagun batian bazkaldu gendun eta domina bana jasota, oso gustura bueltau ginan etxera". Jose Antonio Hidalgo monitorea, berriz, oroigarri bat jaso zuen egindako lanagatik.



Argazkian 24 kirolari elgoibartarrak agertzen dira eta erdian Jose Antonio Hidalgo monitorea, bere garaikurrarekin.

Gaizka Lazarobaster, Haundiko jokalaria irabazi du Idarraga saria

Haundiko jokalaririk erregularrena Gaizka Lazarobaster mendarotarra izan da 98/99 denboraldian. *Idarraga Kafeak 2. Saria* izenpean, denboraldi hasieratik amaierara arte, hainbat pertsonak, tartean *Haundiko* entrenatzailea, zale-tuek eta klubeko kideek, jokalaria bakoitzari puntuak eman dizkiote astero zelaian erakutsitakoaren arabera. Denboraldi amaieran Gaizka Lazarobaster izan da puntu gehien lortu dituen, 40 punturekin, eta bigarrena Gurrutxaga atzelaria izan da 39 punturekin. Sari banaketa ekainaren 12an, larunbata, C. D. Elgoibarko 7 taldeek batera egin zuten afariaren aurretik egin zen.



Ezkerretik hasita Julen Konde, C.D. Elgoibarko lehendakaria, Gaizka Lazarobaster eta Jabier Idarraga.

P.S.K taldeak irabazi du Elgoibarko Futbito Txapelketa



Pasa den ostiralean, hilak 11, P.S.K. eta Lojantzi taldeek jokatu zuten Elgoibarko Futbito Txapelketako finala Kiroldegian. P.S.K taldeak 5 eta 2 irabazi zuen eta Liga txapelketa eskuratu du. 9 talde aritu dira aurtengo txapelketan eta liga erregularra amaitu ondoren lehen lau sailkatuen artean jokaturako ligaxkan erabaki da talde txapelduna. Ondoko tauletan, taldeen eta jokalarri onenen sailkapenak agertzen dira.

LIGAKO FINALEKO JOKALARI ONENA: **Osar Malvar (P.S.K.)**

KOPAKO FINALEKO JOKALARI ONENA: **Zigor Cornejo (Lojantzi)**

TALDEEN SAILKAPENA

Postua	Taldea	Puntuak
1	P.S.K.	26
2	Lojantzi	23
3	Los Peñaskos	22
4	Spartak Braga	21
5	Kunta Kinte	21
6	Los Herminios	11
7	Aizkorak Mendibil	9
8	Berrogei Duro	7
9	Aide Globun	4

TXAPELKETAKO GOLEATZAILE ONENA


Postua	Jokalaria	Golak	Taldea
1	Mikel Leon	35	P.S.K.
2	Mariano Lopez	20	Lojantzi
3	Ernesto Sanchez	18	Los Herminios
4	Hector Garrido	16	Kunta Kinte
5	Igor Castañares	15	Lojantzi

Francisco Blanco eta Pablo Lechuga taekwondoko 2. eta 3. Dan-aren jabe


Pablo Lechuga eta Francisco Blanco elgoibartarrak Taekwondoko 3. eta 2. Dan-eko gerriko beltzaren jabe egin dira, hurrenez hurren. Leioan egin zituzten gerrikoak lortzeko proba gogorrak (proba teknikoak eta konpetiziokoak). Tribunalak hiru korearrek osatu zuten eta oso begi zorrotzez ebaluatu zituzten, baina elgoibartarrek probak gaintitza lortu zuten. Dagoeneko bi kirolari dira Elgoibarren Taekwondoko 3. Dan-a daukatenak. Kirol honek Elgoibarren daukan maila handiaren adierazgarria da hori.

Borroka librea

Ibai klubeko Andoni Atrio eta Andoni Garcia elgoibartarrak Euskadiko Borroka Libre Olinpikoko Euskadiko selekzioarekin parte hartu zuten ekainaren 12an. Selektzioen arteko Bartzelonako torneoan lehiatu ziren. Borrokaldi gogorak izan zituzten eta azkenean, zilarrezko domina lepoan zutela itzuli ziren etxera. Gogoratu behar da Andoni Atriok brontzezko domina lortu berri duela Sevillan, hain zuzen ere Espainiako Junior Txapelketan



Pablo Lechuga



Francisco Blanco

EMAITZAK

Futbitoa

Lojantzi 2- P.S.K. 5

Futbol 7 txapelketa

Bar Las Torres 1 - Laranja Mek. 3
 Costo de Doñana 0 - Inkision 19
 Kaskina Brewers 3 - Bar Gure Toki 4
 La Tarantela 14 - A.P.T.C.P.K. Dos 1
 Bar Margon 1 - Grassoppers 8
 Antzarrak 4 - Kadar C. F. 4
 Faustino VII 3 - Tiroriro Taberna 1
 Zergatik ez 5 - Olaso F. C. 2
 El que sobra 1 - Elur F. S. 9
 Zordunak 0 - Malas Hierbas 10
 Los Txatos 10 - No nos patrocinan 2
 Elgoibar F. S 7 - F. C Los Cillones 2

Esku pilota

Lagunak Pilota Txapelketa

I Txurruka 18 - J. Muñoz 6 (Aleb.)
 Egoitz Zulaika 18 - Ibai Ugalde 9 (Aleb.)
 H. Iriondo 18 - A. Agirrebeña 11 (Inf.)
 E. Ulazia 18 - Oier Arizmendi 13 (Inf.)

Barnasound

Emo Core: emozioa lantzen duen *Hardcorea*, edo behintzat hau da Bartzelonatik datozen talde askori ezartzen zaien etiketa. Etiketa hau dela-eta, talde asko sartu dituzte zaku berean, nahiz eta askok zerikusirik ez izan. B-core izan dugu istilu hau guztia sortu duen zigilua, orain dela 10 urte baino lehenagotik: *Subterranean kids*, *Corn Flakes* (orain *Casino*), *Aina* edo gaur auzentzen diuedan: **A ROOM WITH A VIEW**.

Nahiz eta madrildarrak izan, Bartzelonan finkatutako taldea da. *Addiction to duplicities* da argitaratu duten lehen diska, nahiz eta aurreko singlea B-coren argitaratu, diska hau beraien zigilu propioan argitaratu dute, *heart in hand*. Erritmoan oinarritutako abestiak dira diska honek gordetzen dituenak, baterijole gazteak izugarritzko erritmoak txertatzen dizkie abestiei, eta pisu gehiena berak darama. Eragin nabarmenak somatzen zaizkie: *Slint*, *June of 44*, *Fu-gazi*, *Sunny day real state* etab.

Izugarritzko heldutasuna ageri du laukote honek, nahiz eta pertsonalitatea pittin bat gehiago bultzatzea falta zaien. Badirudi, Barnan H.C melodikoa alde batera utzi eta beste bide batzuen bila dabilzala... ea ba.

Iban Urizar




Altzolako San Juanak, suaren inguruko jaiak

Ekainaren 23an hasi eta hilaren 26ra arte luzatuko dira

Udarekin batera helduko zaizkigu Altzolako San Juan jaiak. Aurten egitarau zabala antolatzea lortu dute. Jende guxti bizi den auzoa izan arren ilusioarekin eta gogoarekin jai dotoreak prestatu dituzte.

Jaiei hasiera eman aurretik, hau da, hilaren 20an *Ondarroako itzulia* txirringulari proba antolatu dute. Ekainaren 23an, berriz, txafliuak botaz emango zaie hasiera jaiei. Ondoren, Salbea abestu eta ohiko San Juan zuhaitza landatuko dute altzolatarrak. Gauean, San Juan suak piztu eta *Combi* eibarko taldearekin dantza egiteko aukera egongo da urteko gaurik luzeenean. San Juan eguna, goizeko 6:00etan hasiko da. Ohitura zahar bati jarraituz auzotarrek etxeetako ateetan Lizar-adarrez egindako erramuak jarriko baitituzte. Eguerdiko 12:30ean Narbaizak eta Meabasterretxeak bertso saioa eskainiko dute eta arratsaldeko 18:00etan gazteenak zentxoekin eta poniekin jostatu ostean, trikitilariak alaitutako txikiteoa hasiko da. Ekainaren 25ean anaiarteko bazkaria izango da arratsaldeko 15:00etan, Haurrentzako parkea 16:30ean, zentxoak eta poniak arratsede 18:00etan eta bertsoak, txisteak



eta kantuak Eusebio Lasarte, Xabier Sukia eta Ibai Esainekin arratsaldeko

19:30etan. Gaueko 23:00etan *Combi* taldeak dantzaldia eskainiko du. Azken egunean, hilak 26, *Combi* taldeak hartuko du jaiei amaiera emateko ardura.

Bailarako harrijasotzaile ohiak omenduko dituzte Sanmigeldarren Egunean

Domekan, hilak 20, San Migeldarren eguna ospatuko dute auzotarrek eta harrijasotzaile izandako bailarako hiru lagun omenduko dituzte. Omenduak, Jose Antonio Ansola (Irunazo), Antonio Egaña (Bioin) eta Juan Barrenetxea (Altzate) dira. Juan Barrenetxeak izan ezik beste biek lagata daukate harrijasotzea, baina garai batean asko ibilitakoak dira. Irunazok eta Bioinek bailara bitan banatu zuen apostua jokatu zuten Azkoitin, auzo erdia baten alde eta beste erdia kontra, azkenean Irunazok irabazi zuen. Irunazok oraindik gaintitu



Ezkerretik hasita J. Antonio Ansola, Antonio Egaña eta Juan Barrenetxea harrijasotzaile ohiak.

ez diren bi marka ere baditu 100 kiloko harri zilindrikoarekin. Omenaldiaren ondoren erromeria izango da Baltzola anaiak trikitilariarekin.

Kizkitza Agirre

G E O L O G I A I K A S K E T A K

IKUSI

eta



IKASI



1 - Nola erabaki zenuen geologia karrerera ikastea?

- Nik hasieran biologia karrerera ikastia nahi naban,

baina LOGSEko 2. mailan

konturatu nintzan biologian ematen ari ginan gaiak ez jatazela asko gustatzen. Orduan, beste zoezer bilatzen hasi nintzan. Zientzietako karreraren listak begiratzen hasi eta geologiakua topau

naban. Institutu-

tuan ez gen-

dun geolo-

giako gaia

asko landu,

baina proba-

tzia pentsau

naban.

2 - Bigarren mailan zaude. Zer moduz joan zaizu orain artekoa?

- Ni gustura naio. Lehenengo mailan fisika, kimika, matematika, biologia eta geologiako ikasgaiak genitxuan eta hasieran nahiko astuna in-

jatan. Baina oin, bigarren

mailan, geologiakin lo-

tutako askoz ere gai

gehixao dauzkagu eta

politxaua da.

3 - Zein ikasgai dauzkazue?

- Oin geologiari inguruko gaiak dia gehixenbat.

Mineralen antolaketa, sedimentuak...

ikasten ditzugu, karrerara bideratu-

tako asignaturak dia. Bost urtetako

karrerria da, eta hirugarren mailatik

aurrera berezitasun bat aukeratu

bihar da. Hiru adar daude eta bakar

bat hartu bihar izaten da: geo-

logia orokorra, lur azpiko

fenomenuak aztertzen di-

txuan atala eta hirugarren

mailak ibaiak, klima... lan-

tzuten ditzu. Oindiokan

nik ez dot erabaki

zein adar hartu bihar

doten, baina gehixoa

gustatzen jataz lur

azalian gertatzen

dianak, mareak,

eguraldixa...

4 - Praktikak ere badauzkazue, ezta?

- Ixa asignatura

guztietan dauzkagu

praktikak. Mendira

edo kostara juten

gera, eta han har-

rixak aztertzen



ditzugu eta horren arabera apuntiak hartu. Gehixenetan egun bateko irteerak izaten dia. Aurten kartografia asignaturako praktikak itxera Bernedora (Araba) jun gera astebeterako. Mapak pintatzen eta kartografiatzen egon gera han. Beste asignatura batzuetan mikroskopiekin mineralak eta harririk ikusten eta aztertzen ibiltzen gera.

5 - Zein irtenbide dauzka geologiako karrerak?

- Irakasleik

komentatzen digute enpresetan,

obrak in aurretik lurrik aztertu eta ber-

tan zer gauza in daitezken esatia izan-

go litzatekeela lan egiteko aukera bat

da. Doñanako minetako paretara itxeko

lur haiek egokixak zian edo ez esateko

arduria geologuek hartu zabela uste

dot, Bilboko metroko obretan ere egon

zian geologuak... Batzuek mendiko lan-

na itxen dabe, harririk hartzen... eta

gero beste batzuek laborategian az-

terketak itxen ditzue. Bakoitzak auke-

ratzen daban berezitasun araberan in-

go daban lana desberdina izango da.

6 - Zer esango zenioke geologia karrerara ikasi nahi duen bati?

- Lan

aldetik igual ez dauzka irteera asko

baina karrera politxa

da. Neri gaiak asko

gustatzen jataz eta

praktiketako irteerekin

asko ikasten dala uste

dot. Lehenengo maila

zaila da, geologiari bu-

ruzko gai bakarria daualako.

Baina bigarren mailatik aurrera gai

gehixenak geologiari ingurukoak dia eta

praktikak gero eta gehixao itxen diaz

klasera gusturao juten da jendia.



🚗 IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ eta GAZTELANIAZ.

🚗 ZIKLOMOTORREKO LIZENTZIA ASTEBETEAN. AZTERKETARIK GABE!

Gaundi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin.

Zatoz informazio eske!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A
Tel: 943 74 10 11

INTERESEKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia:
 Larrialdiak . . . 943 461111
 Txanda hartzeko . 943 743354
 Planning-a 943 742950
 Alkoholiko Anonimoak . 943740385
 D.Y.A (anbulantzia) . 943 464622
 Gurutze Gorria . . 943 743864
 Mendaroko Ospitalea . 943 032800
 Odol Emaileak . . 943 743936

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak . . 943 740442
 PESA (Eibar) . . . 902 10 12 10
 Taxi geltokia . . . 943 740898

UDALA

Euskara Zerbitzua . . 943 744366
 Udal Kirol Patronatua . 943 744415
 Kultura Zerbitzua . . 943 742158
 Mendaroko Udala . . 943 756100
 Ongizate zerbitzua . . 943741008
 Udaletxea 943 741050
 Udaltzaingoa . . . 943 741394

BESTELAKOAK

Elgoibarko Izarra . . . 943 741626
 Kiroldegia 943 744415
 Kontsumo Bulegoa . . 943 743088
 Liburutegia 943 743525
 Musika Eskola . . . 943 742145
 Mintxeta 943 744315
 Parrokia 943 740842
 Postetxea 943 741547
 Gaztetxea 943 743572

ADINEKOEN ETXEA

San Lazaro Egoitza . . 943 740296
 Zaharren Biltokia . . 943 740526

IKASTETXEA

Haur Eskola . . . 943 74 21 41
 HHI (EPA) 943 74 08 80
 Herri Eskola . . . 943 74 08 79
 I.M.H. 943 74 41 32
 Herri Institutua
 Arreiturre . . . 943 74 02 67
 Ezenarro (Meka) . 943 74 44 80
 Ikastola 943 74 44 41
 Pilar Ikastetxea . . 943 74 13 31

KOMUNIKABIDEAK

BARREN 943 74 41 12
 El Diario Vasco . . . 943 74 40 73
 El Correo Español . 943 74 10 82
 Gara 943 10 84 21
 Zazpiki irratia . . 943 74 34 74

20 igandea

10:00 IKASTURTE
BUKAERAKO
IRTEERA
 Irteera: Udaletxe parean
 Antolatzailea:
 Herri Eskola

11:30
SANMIGELDARREN
EGUNA

12:30 UDAL
BANDAREN
KONTZERTUA
 Herriko Antzokian

18:30 GELATXO
ORKESTA
 Plaza Handian

19:30-22:15 ZINEA
 "Las fuerzas de la naturaleza"

23 asteazkena

19:00 HITZALDIA
 Gaia: "Oreka bilatzen"
 Hizlaria: Amaia Meoki.
 Medikuntza japoniarrean eta shiatsu-n lizentziatua.
 Antolatzailea:
 Kemen belardenda
 Kultur Etxean

24 osteguna

19:30 C.D.
ELGOIBARREN
URTEKO BATZARRA
 Kultur Etxean

25 ostirala

22:15 ZINEA
 "Todo sobre mi madre"

18 ostirala

22:15 ZINEA
 "Las fuerzas de la naturaleza"

19 larunbata

11:30 KARATE
ERAKUSTALDIA
 Antolatzailea:
 Olaizaga Kirol Taldea
 Kiroldegian

12:00 ZAZPIKI
IRRATIAREN
BATZARRA
 Ganbaran

19:30-22:15 ZINEA
 "Las fuerzas de la naturaleza"

21 astelehena

19:00 ERAKUSKETA
 Antolatzailea:
 Eskuz Elkartea
 Kultur Etxean
 Hilaren 27ra arte

22:15 ZINEA
 "Las fuerzas de la naturaleza"

ZINEA



Zuzendaria: Bronwen Hughes.
Antzezleak: Sandra Bullock,
Ben Affleck, Maura Tierney.

Las fuerzas de la naturaleza

Ben (Ben Affleck) New York-en bizi da eta egun gutxi barru Savannah izeneko herrian ezkonduko denez, hegazkina hartuko du. Hegazkinak aireratzean istripua izango du eta neska gazte bati bizi salbatuko dio. Bere esker ona adierazteko, neskak ezkontzara garaiz hel-tzen lagunduko dio. Bidea oztupoz bete-a izango da eta gainera maitemindu egin-go dira.

● Bizitzeko arteari buruzko hitzaldia, hilaren 23an Kultur Etxean

Amaia Meoki, japoniar medikuntzan eta shiatsu teknikan lizentziatutako mediku kataluniarrak “oreka bilatzen” izeneko hitzaldia eskainiko du datorren asteazkenean, hilak 23 Kultur Etxean. *Kemen* belardendak “bizitzeko artea” izenburupean antolatu dituen hitzaldietako lehenengoa izango da. Saioa arratsaldeko 19:00etan hasiko da.

● San Bartolome jaietan txoznak jartzeko epea ekainaren 29an bukatzen da.

Udaleko Kultura sailak, San Bartolome jaietan txoznak jarri nahi dituzten taldeei jakinarazten die, txoznak jartzeko eskaera epea ekainaren 29an bukatzen dela (epea kanpo egindako eskaririk ez da onartuko). Eskaerak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira goizeko 11:00etatik 13:00etara. Ordu hontatik kanpo, Kultur Etxeko buzoian sar daitezke.

● Karate erakustaldia, bihar, hilak 19, Kiroldegian

Olaizaga Kirol Taldeak Karate erakustaldia eskainiko du zapatuan, hilak 19, Kiroldegian. Luis Agirregomez-korta maisuaren zuzendaritzapean, 3 taldetan banatuta, 44 lagunek parte hartzen dute Karate klaseetan urte gutxian. Ikasle hauek izango dira aurten ikasitakoa *tatami*aren gainean erakusteko ardurak izango dutenak. Erakustaldia, goizeko 11:30ean hasiko da eta sarrera dohainik izango da.

● Sanmigeldarren Eguna domekan, hilak 20 izango da

Domekan, hilak 20, Sanmigeldarren eguna ospatuko dute. Auzotarrek eguna ondo hasteko, meza izango dute 11:30ean auzoko ermitan. Meza ostean txorizoa eta salda banatuko dituzte. 12:30ean pelota partidua izango da Murkaikupe frontoian. Gero, nahi duten guztiak bazkaltzeko elkartuko dira auzoko elkarteetan. Bazkal ostean harrijasotzailer izandako bailarako hiru gizon omenduko dituzte Sanmigeldarrek. Omenduak Jose Antonio Ansola (Irunaso), Antonio Egaña (Bioin) eta Juan Barrenetxea (Alzate) dira. Orain lagata daukaten arren garai batean harrijasotzen asko ibilitakoak dira hirurak. Omenaldiaren ondoren, erromeria izango da Baltzola anaiak trikitilariekin. Eguna amaitzeko, arratsaldeko 19:00etan gaztetxoek antolatutako ibilaldirako otarraren zozketa egingo da..

● Gaztetxoek partaidetza bultzatzeko, ekainaren 26ra atzeratu dute Nahaste Borraste proba

Kimetz Elkartek *Nahaste Borraste* lasterketa herrikoia-aren 15. edizioa antolatu du. Ekainaren 21ean, udan sartzen garen egunean egin izan dute aurten arte, baina ikasleentzat azterketa garaia dela-eta hilaren 26ra atzeratzea erabaki dute antolatzaileek. 14 urtetik beherakoen proba eguerdiko 13:00etan hasiko da *Kimetz* Elkarteetan, eta nagusien irteera Plaza handian izango da gaztetxoek proba amaitu bezain pronto. *Kimetz* Elkartetik aditzera eman digutenez, gaztetxoek partaidetza bultzatzeko asmoarekin, mendi bizikleta bat zozketatuko da 14 urte bitarteko proba bukatzea lortzen duten kirolarien artean. Hiru kirol konbinatzen dituen proba gogor honetarako izena emateko azken eguna, igandean, lasterketa hasi aurretik izango da. Aurrez izena ematea nahi izanez gero *Kimetz* Elkartera joan. Gogoratzea komeni da lasterkari guztiek kaskoa eraman beharko dutela.

● Udalaren Musika Bandaren kontzertua

Igandean, hilak 20, Udalaren Musika Bandaren kontzertua izango da eguerdiko 12:30ean hasita Herriko Antzokian. Jose Antonio Osorok zuzenduta hauek dira joko dituzten piezak: “*Peña taurina Victoriana*” (M. Domingo), “*Bocetos del Caucaso*” (I. Ivanov), “*Entre Flores*” (J. Pacheco), “*L’ Arlesienne*” (G. Bizet) eta “*Moment for Morricone*” (E. Morricone).

● C.D. Elgoibarren Urteko Batzarra ostegunean, hilak 24

C.D. Elgoibarrek Urteko Batzarra egingo du ostegunean, hilak 24, Kultur Etxean. Aztertuko diren gaiak honakoak izango dira: denboraldiaren kirol balantzea eta balantze ekonomikoa, 1999/2000 denboraldirako helburuak eta aurrekontua. Ondoren, galderentzat eta eskakizunentzat txanda izango da. Klubetik bazkide guztiei luzatu nahi diete deia eta sarreran bazkide txartela eskatuko zaiela jakinarazi nahi diete. Batzarra arratsaldeko 19:30ean hasiko da

● Herri Eskolakoek ikasturte bukaerako irteera egingo dute San Pedrorra

Herri Eskolako ikasleek eta gurasoek ikasturte bukaerako irteera egingo dute domekan, hilak 20. Goizeko 10:00etan irteera dira Udaletxe paretik eta San Pedro eta Elorrixa bitartean ibilaldia egin ondoren Arraten bazkalduko dute. Bazkaria guraso eta ikasle talde batek prestatuko du. Ondoren, jolasak izango dira haurren eta nagusien gozamenerako.

● Odol ateraldia ekainaren 25ean

Odol Emaleen Elkartetik aditzera eman nahi dute, datorren ostiralean, hilak 25, odol ateraldia izango dela Pedro Migel Urruzuno 8ko egoitzan. Aurrez deitutako guztiei eta bereziki 18 urtetik gorako guztiei odola ematea oso garrantzitsua dela gogorarazi nahi diete.

T X A N D A K

FARMAZIAK

	Egunez	Gauetz
19	Etxeberría*	Zabaleta (Errosario kalean)
20	Etxeberría*	Zabaleta (Errosario kalean)
21	Yudego	Yudego
22	Zabaleta	Zabaleta
23	Etxeberría	Etxeberría (Errosario kalean)
24	Escala	Escala
25	Bidasolo	Bidasolo

* (eguerdiko 2ak arte)

ESCALA: Rekalde, 1 Soraluze. Tel: 943 75 16 38

ANDUAGA: Herriko enparantza 4, Garagarza. Tel: 943 75 61 42

ZABALETA: Kalebarren, 9 Soraluze. Tel: 943 75 13 84

OKINDEGIA
20 igandea Idarraga

OHARRA:

Merkatu txikirako mezuak ekartzeko azken eguna **ASTEAZKEN EGUERDIA** da.

Lana

◆ **ESKAINNTZA** ◆

- ◆ Asteburuetarako kamarera behar da. ☎ **943 12 73 34**
- ◆ Pertsona euskalduna behar da 2 urteko umea zaintzeko. ☎ **943 74 42 97** (20:00etatik aurrera)
- ◆ Elgoibarren senar-emazte edadetu zaintzeko emakumea behar da. ☎ **943 29 05 12**
- ◆ Neska gaztea behar da ekainaren amaieratik irailaren 15era arte Zaurutzen 2 ume zaintzeko. Interna eta astean egun bat libre. ☎ **943 74 15 20** (Arantxa)
- ◆ 25 eta 40 urte arteko kamarera behar da jatetxe batean lan egiteko. Esperientziarekin. *Jaika* Jatetxea. Beharrezkoa abuztuan lan egitea. ☎ **943 74 03 89**
- ◆ Pertsona behar da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. ☎ **943 74 35 31**
- ◆ Kamareroa behar da udan Debaiko taberna batean lan egiteko. ☎ **943 19 23 77**

◆ **ESKAERA** ◆

- ◆ Erizaintzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixok eta edadetuak zaintzeko. Etxean edo ospitalean. Egunez nahiz gauzez. ☎ **943 74 27 78**
- ◆ Emakumea eskaintzen da gaixok edo umeak egun osoz zaintzeko. Esperientzia daukat. ☎ **943 17 47 70**
- ◆ Neska eskaintzen da tabernak, lokalak eta dendak goizez garbitzeko. ☎ **943 17 29 20**.
- ◆ Edadetuak zaintzeko esperientziadun emakumea eskaintzen da. ☎ **943 74 25 39** (Maria Luisa)

Garajeak

- ◆ Garaje itxia alokatzen da Kiroldegi parean (San Roke). ☎ **943 74 06 09**
- ◆ Garajea alokatzen dut Arregitorre kaleko 6. zenbakian. ☎ **943 74 02 63**
- ◆ Pista Beltzaren azpian marradun garajea alokatzen da. ☎ **943 74 19 55**

Bestelakoak

- ◆ Karabana gordetzeko lokala alokatuko nuke. ☎ **943 74 29 52** (20:00etatik aurrera deitu)
- ◆ Lokala alokatzen dut Santa Ana kalean. Denda jartzeko egokia. ☎ **943 74 12 83**
- ◆ Urrezko katea galdu dut Madalatik Artetxera bitarteko bidean. Norbaitek aurkitu badu, mesedez deitu dezala **943 74 10 85** telefonora.
- ◆ 6 hilabete baino gutxiago dituen pastor aleman txakurra erosi nuke. ☎ **943 75 50 71**
- ◆ Kotxesila egiten den kotxe kapota eskaintzen dut, osagai guztiekin. ☎ **943 74 33 59** (20:30etik 22:30era)
- ◆ *Jane* markako haur kotxesila galdu duenak Udaltzaingoa erosi nuke. ☎ **943 75 50 71**
- ◆ Taberna hartuko nuke errentan. Elgoibarren edo inguruan. ☎ **943 17 47 70**
- ◆ Trinitate jaietan, plazan umeak dantzan ari ziren bitartean, gizon batek riñonera bat hartu zuen elizako arkupeetatik. Bertan umeen erlojuak, giltzak eta kartera bat zeuden. Hartu zuen gizonari lehenbailehen Udaletxean uzteko eskatuko nioke.

Etxebizitzak

- ◆ Udarako baserria alokatzen da Goizuetan, Talde handientzat prestatuta. Aste baterako, hama-bostaldirako, zein hilabeterako. ☎ **943 42 79 27**
- ◆ Laredon apartamentua alokatzen dut uda honetarako. Hondartza hertzean dago. ☎ **943 7952 80/ 656 71 77 45**
- ◆ Etxea alokatzen dut Zumaian. Uztaila eta iraila. ☎ **943 86 05 93** (18:00etatik 21:00etara. Loli)
- ◆ Apartamentua alokatzen dut Torrevieján. Udan. ☎ **943 74 24 50**
- ◆ Pisua alokatzen dut, altzariekin. San Frantzisko, 12. ☎ **943 74 16 71** (Ana)
- ◆ Etxebizitza salgai, altzariekin. 4 gela, egongela-jangela, sukaldaria, 2 komun eta trasteroa dauzka. Kanpoko aldera ematen du eta eguzkitsua da. Berritua. ☎ **943 74 40 31/943 74 14 54**
- ◆ Pisua edo buhardila alokatuko nuke. ☎ **943 74 31 75**
- ◆ Pisua alokatzen dut P.M. Urruzuno 8-1. ☎ **943 74 12 75**


Agurrak

- ◆ **Zorionak sardinera**, hilaren 8an 11 urte bete zenituelako. Ea asmatzen duzun zein garen.
- ◆ **Zorionak ikastolako 4B gelakoei** Osasunkumeko irabazleak izan direlako. Ondo pasatu Eurodisneyn. 4A gelakoen eta bereziki Itsasoren, Ileaniaren, Nerearen eta Eheritzen partez.
- ◆ **Zorionak Amaia Vegasi**, hilaren 11n 9 urte bete zituelako. Gurasoen eta bereziki Lauraren partez.
- ◆ **Albertorentzat** tia Nekaneren partez, "kiss" handi bat. Oso ondo egin duzu. Txapeldun bat zara. Mikelen partez ere muxu handi bat.
- ◆ **Zorionak Jokini**, ekainaren 16an 12 urte bete zituelako. Ikastolako 6. mailako partez.
- ◆ **Zorionak Mainerri, Luciar** eta **Tamarari**, Pilarreko 5. mailako neska guztien partez. Zorionak baita ere lagun partez.
- ◆ **Zorionak Dorleta Loiolari**, hilaren 15ean urteak bete zituelako. Lagunen partez. Zorionak baita ere bere lehengusina Lararen partez.
- ◆ **Zorionak Imanol Gallegori eta Ion Garateri** hilaren 22an eta 30ean 16 eta 17 urte beteko dituztelako. Lagunen partez.
- ◆ **Zorionak Jokin Zubiaurreri**, 12. gola sartu zenuelako ekainaren 16an. Ikastolako 6. mailako partez eta bereziki A...ren partez. Aupa futbola eta gol gehiago sartzea espero dugu.
- ◆ **Zorionak Mari Cruz S. Andresi** ekainaren 22an urteak beteko dituelako. Nerearen, Leireren, Iratxeren eta Anselmoren partez. Ondo pasa zure eguna.
- ◆ **Zorionak Amaia Saenzi**, hilaren 14an urteak bete zituelako. Lagunen partez.
- ◆ **Zorionak Oihana Apellanizi**, hilaren 15ean 16 urte bete zituelako. Familiaren eta batez ere Leireren partez. Eguna ondo igaro zenuela espero dugu.
- ◆ **Zorionak Ibairi** hilaren 14an 4 urte bete zituelako. Familiaren eta bereziki Leireren partez.
- ◆ **Zorionak Mariaje!** Iaz libratu bazina ere, aurtan ezingo dozu disimulatu, 30 urte! Astelehena asteke egunik aproposena ez bada ere, ondo-ondo pasau 21ean eta esker mila luntzagatik. Elgoibarko Izarrako lankideak.
- ◆ **Zorionak Gorkari**, hilaren 16an urteak bete zituelako. Familiaren partez.
- ◆ **Zorionak Lucia Segurari**, hilaren 16an urteak bete zituelako. Lararen eta Ainhoaren partez.
- ◆ **Zorionak Josu Abadi**, hilaren 13an urteak bete zituelako.

◆ **Zorionak Kimetz** eta 11 tirakada haundi, hilaren 14an urteak bete zituelako. Etxeko eta bereziki Imanolen partez. Zorionak baita ere Ikastolako 5. maila osoaren partez.



◆ **Zorionak etxeko txikixari**. Laster bikora ailegauko zera. Patxo haundi bat etxeko dannon partez.



◆ **Zorionak Sara**, presta zaitez astebururako, ezkon aurrerako froga gairitu beharra daukazu-eta. Ederki asko pasauko dogu zuk oraindik ez dakizun leku horretan. Zure kuadrila.



◆ **Zorionak Juleni**, hilaren 16an 5 urte bete zituelako. Familia osoaren partez.



◆ **Zorionak Sarari**, hilaren 12an 8 urte bete zituelako. Familia guztiaren eta lagun partez.



◆ **Zorionak Unairi**, hilaren 22an 9 urte beteko dituelako. Familia guztiaren partez.



◆ **Zorionak Nahia**, hilaren 19an 8 urte beteko dituzulako. Familia guztiaren partez. Zorionak baita ere Ikastolako 2B gelako partez.



◆ **Zorionak Jose Antoniori**, hilaren 23an urteak beteko dituelako. Emaztearen eta seme-alaben partez.



◆ **Zorionak Amairi**, hilaren 16an urteak bete zituelako. Elgoibarko familia guztiaren partez, ondo pasatu.



Udako KIROL Kanpaina 99

ELGOIBARKO OH KIRO PATRONATUA

ARKUZKO TIRAKETA
IGERIKETA
PARKE NATURAL *Letara* **IRTEERAK**
ROCK&ROLL-a
TENISA
PATINAJEA
BUZEOA
ENTRENAMENDU MUSKULARRA

MENDIKO BIZIKLETA
ESKALADA
HAURRENTZAT AEROBIKA
EMAKUMEENTZAKO
DEFENTSA PERTSONALA
RAPPEL eta TIROLINA
GIMNASIA ERRITMIKOA

Ekainaren 28tik uztailaren 23ra
Izen ematea: Olaizaga Kiroldegian (943 74 44 15)

ENJOY!

Beste hizkuntzetan

Mugitu barik, *ENJOY Beste hizkuntzetan*-ekin, alemanieraz, frantsesez eta ingelesez jolastu eta gozatuko duzu.

UZTAILA
10:00h - 13:00h

6 urtetatik 13 urte bitartekoak

INDUSTRY LANGUAGE SERVICES

ERREMINTA MAKINA INSTITUTUA
INSTITUTO DE MAQUINA HERRAMIENTA

TEL. 943 74 40 40
 Fax. 943 74 16 54 E-mail: ils@jet.e
 San Roke Auzoa, 1 **Elgoibar**
 ILS Industry Language Services

juegos, antzerkia, musica, mozorroak
 manualidad, s, antzak, teatro
 jolasak, ipuinak, disiraces, mozu
 eta, pegatu, bailes, cuentos

freskura DOAN



3 garantia
urteko edo 100.000 km. **120** puntu
SALTOKI

Bezeroaren arreta telefonoa:
902 246 902



HYUNDAI

Gida ezazu marka handi bat

HILABETE HONETAN HYUNDAIK AIRE GIROTUA OPARITZEN DIZU*.

*ACCENT, LANTRA, SONATA ETA COUPE MODELOTAN HIL BUKAERA ARTEKO PROMOZIOA. SONATA MODELOAREKIN KLIMATIZAZAILUA DOAN.



SONATA



LANTRA



ACCENT



COUPE

MENDARO AUTOAK (KONTZESIONARIO OFIZIALA) DONOSTIA · TEL. 943 31 22 00 · EIBAR · TEL. 943 70 13 82 · ELGOIBAR · 943 74 32 00
AGENTE OFIZIALAK: ARRASATE TEL. 943 71 20 02 · TOLOSA · TEL. 943 67 40 29 · BEASAIN · TEL. 943 88 34 00 · LAISTER IREKIKO DUGU IRUNGO KONTZESIONARIOA